

LAN ESKAINTZA

Karrikiri euskal dendak lanaldi erdiko lanpostua eskaintzen du.

Gure eskaintza:

- Lanaldi erdiko lanpostua. Astelehenetik ostiralera, arratsaldean (17:00etatik 20:00etara) eta larunbatetan, goizez (10:30etik 14:00etara)
- 2 hilabeteko proba eta, gero, luzerako kontratua.
- Hasiera data: irailaren 18a. Gizarte Segurantzaren alta, soldata 14 ordaintzat eta dagozkion oporrak.
- Lanpostua Karrikiri euskal dendan aritzeko da. Bertan eskaintzen ditugun produktuak: liburuak, diskak, jostailuak, kaleko arropa, euskal jantziak...
- Lan talde batean lanean aritzea

Eskatzen duguna:

- Euskal produktuak ongi ezagutzea edota ikasteko grina izatea, batez ere, liburuak eta diskak.
- Euskaraz aise eta ongi aritzea, ahoz eta idatziz
- Jendearekin egotea gustukoa izatea eta jarrera proaktiboarekin lan egitea.
- Lanerako konpromisoa izatea luzera begira.
- Karrikiriko proiektuarekin bat egitea eta proiektuan sinistea.

Interesaturik baldin bazaude eta gurekin lan egitera etorri nahi baduzu bidali zure CVa bulegoa@karrikiri.eus helbidera irailaren 12a baino lehen!!

Elkarrizketak irailaren 13an eta 14an egingen ditugu.

